adierazi du ez dituztela ezagutzen herritarrek AQS zerbitzuaren bidez aurkeztutako kexak, izan ere, udalak ez die informazio hori ematen. Baina bistakoa da sare sozialetan gero eta kexa gehiago agertzen ari direla zerbitzuen inguruan, besteak beste zaborra, lorezaintza eta zabuen mantentze-lanak direla eta. Orokorrean, azpikontratatutako enpresa gehienek txarto egikaritzen dituzte euren lanak, eta lantaldeak arduragabekeriaz eta nagikeriaz jarduten du udal-zerbitzuak kontrolatzeari dagokionez. Aspaldi Osoko Bilkurak PPk aurkeztutako mozio bat onetsi zuela gogoratzen du. Bertan zera plantatzen zen: bideak garbitzeko zerbitzua, zaborrak biltzeko zerbitzua eta lorezaintza-zerbitzua hornitzeko egunak eta orduak jendaurrean jartzea atari guztietan, hartara, herritarrek horien berri izan eta zerbitzuk kontrolatzeko aukera izan zezaten. Baina gobernu-taldeak ez du mozioa gauzatu.

e indica que desconocen las quejas presentadas por los vecinos a través de las AQS ya que el ayuntamiento no facilita esa información pero es evidente que en las redes sociales se incrementan las quejas sobre servicios como el de basuras, jardinería, mantenimiento de columpios, etc. En general, la mayoría de las empresas subcontratadas ejecutan mal los trabajos y el equipo de trabajo actúa con negligencia y desidia en el control de los servicios municipales. Recuerda que el Pleno aprobó hace tiempo una moción del PP en la que se planteaba hacer público en todos los portales los días y fechas de prestación de servicios de limpieza viaria, de recogida de basuras y jardinería para que la ciudadanía tuviera conocimiento de los mismos y pudiera ejercitar un control pero esa moción el equipo de gobierno no la ha llevado a cabo.

Ibon Rodriguez jaunak, EH Bildu taldearen izenean, beste transakzio-zuzenketa osagarri bat aurkeztu eta irakurri du:

Ibon Rodríguez, en nombre de EH Bildu, presenta una enmienda transaccional de adición a la que da lectura:

*"BIGARRENA.- Kontratutako enpresa pribatuen kontrol eta jarraipen mekanismoek ere kontratuan sinatu diren klausula guztiak betetzen direla bermatu beharko dute eta bereziki langileen lan baldintzen bermea eta lan hitzarmenen betetze maila arautzen dituztenak, ezin baita onartu udal zerbitzuak eskaintzen dituzten langileek, nahiz eta zeharka izan, lan prekarioak izatea."*

*"SEGUNDO: El mencionado mecanismo de control también deberá de vigilar y garantizar el cumplimiento de todas y cada una de las cláusulas recogidas en el contrato y en especial aquellas cuya finalidad es proteger las condiciones laborales de los y las trabajadoras y el cumplimiento del convenio sectorial de referencia. No podemos admitir que trabajadores y trabajadoras que presten servicios municipales, aún siendo de forma indirecta, lo hagan en condiciones laborales precarias."*

Eduardo Andrade jaunak onartu egin

Eduardo Andrade acepta la enmienda.

du zuzenketa.

Santiago Sainz jaunak herritarrei eskerrak eman die zerbitzuen hutsuneen inguruan aurkezten dituzten idatzi eta salaketengatik, horien bidez udalak jardutea ahalbidetzen dutelako. Mozioarekin eta zuzenketarekin ados dago, baina adierazi du eskatutakoak giza baliabideen dedikazio handia exijitzen duela —Ciudadanos alderdiak babesten duena—. Hala ere, PP alderdiari koherentzia eskatu dio; izan ere, mota horretako mozioak aurkezten ditu, baina gero 2016ko aurrekontu osoko bilkuran kritikatu zuen Getxoko Udalaren gastu arrunta eta langilerian egiten den gastua.

Santiago Sainz agradece a los vecinos los escritos y denuncias que plantean sobre las deficiencias de los servicios ya que eso hace que el ayuntamiento pueda actuar. Está de acuerdo con la moción y la enmienda pero indica que lo que se pide requiere una gran dedicación de recursos humanos, cuestión que Ciudadanos apoya, pero piden coherencia al PP ya que presenta este tipo de mociones y en el pleno de prespuestos de 2016 criticó el gasto de personal y gasto corriente del Ayuntamiento de Getxo.

Enrique Olaso jaunak esan du GUK ados dagoela bai mozioarekin, baita zuzenketarekin ere. Agerikoa da zerbitzuen kalitatea gero eta okerragoa dela, eta kontrola eta zerbitzuaren hornidураren kalitatea zuzenean lotuta daudela uste du. Pribatizazioaren eta pribatizaziotik onurak ateratzen dituztenen problematika ere planteatu du. Gobernu-taldearen irizpideei jarraiki sustatu da politika hori, nahiz eta GUKen aburuz zerbitzu batzuk udalak berriro bere gain hartzea planteatu behar den.

Enrique Olaso manifiesta que GUK está de acuerdo con la moción y la enmienda. Cree evidente que la calidad de los servicios está descendiendo y cree que existe una relación directa entre el control y la calidad de prestación del servicio. Plantea también la problemática de la privatización y de quién se beneficia de la misma, política que se ha impulsado por los criterios del equipo de gobierno, aunque por parte de GUK estiman necesario plantearse la remunicipalización de algunos servicios.

Ibon Rodríguez jaunak esan du oinarrizko zerbitzuak (bideen garbiketa, zabor-bilketa eta abar) zuzenean egikaritzearen aldeko apustua egiten duela EH Bilduk, hartara, zerbitzuaren kalitatea nahiz lan-baldintzen kalitatea bermatzeko eta herritar guztientzat onuragarria izan dadin. Gogorarazi du kontratatutako enpresetako langileek grebak egin izan dituztela udaleko langileen eta kontratatutako enpresetako langileen artean eginkizun berberak egiteagatik

Ibon Rodríguez indica que EH Bildu apuesta por que los servicios básicos como la limpieza viaria, la recogida de basuras, etc., deben ser ejecutados de forma directa para garantizar tanto la calidad del servicio como la calidad de las condiciones laborales y que los beneficios repercutan en toda la ciudadanía. Recuerda que se han visto huelgas de trabajadores de empresas contratadas fundamentalmente por las grandes diferencias salariales que existen por realizar las mismas tareas

dagoen soldata-aldearen ondorioz. Zerbitzu bat kalitatezkoa izan dadin langileek lan-egoera duina izan behar dutela uste du. Lan baldintzen egungo egoeraren errua ezin zaie langileei leporatu, pribatizazio-politikari baizik. Oinarrizko zerbitzuak zuzenean kudeatu behar direla uste du, eta hori egiten ez den bitartean udalak enpresa kontratisten lan-kontratazioaren kalitatea kontrolatu beharko luke.

entre las empresas contratadas y los trabajadores municipales. Opina en que la calidad del servicio se basa en que los trabajadores tengan una situación laboral digna y de la situación actual de sus condiciones laborales no se puede culpar a los trabajadores de las contratas sino a la política de privatización. Cree que los servicios básicos deben gestionarse de forma directa y en tanto ello no se realice debe el ayuntamiento controlar la calidad en la contratación laboral de las empresas contratistas.

Alvaro González jaunak, gobernu-taldearen izenean, adierazi du Getxoko kaleak garbi daudela eta lorezaintza-zerbitzuak ondo funtzionatzen duela; herritarren asebetetze-inkestetan herritarrek egin dituzten balorazioetan oinarritzen da hori esateko. Balorazio positibo hori udalak kontratatutako enpresetan egiten duen kontrolari esker lortu da zati batean. Amaitzeko, esan du gobernu-taldeak beharrezko baliabideak jartzen dituela kontratuak gainbegiratzeko ardura duten udal-teknikarien esku.

Alvaro González, en nombre del equipo de gobierno, indica que las calles de Getxo están limpias y el servicio de jardinería funciona bien, remitiéndose para ello a las valoraciones que realizan los ciudadanos en las diferentes encuestas de satisfacción ciudadana. Esa positiva valoración opina que se debe en parte al control municipal que se realiza sobre las empresas contratadas. Finaliza indicando que el equipo de gobierno pone a disposición de los técnicos municipales encargados de la supervisión de los contratos los medios necesarios.

Eduardo Andrade jaunak adierazi du PP kezkatuta dagoela gobernuak dena ondo dagoela uste duelako, bide horretatik jarraituz gero ez baitu inoiz zerbitzuak hobetzea proposatuko. Sare sozialetan agertzen denarekin bakarrik, bere aburuz, bistakoa da zerbitzuek ez dutela behar bezala funtzionatzen, eta sare sozialetan agertu diren salaketa zehatz batzuk jarri ditu adibide gisa. Zerbitzuen gaineko kontrola hobetu beharra dagoela uste du, eta ez du balio herritarren asebetetze-inkestetan nota altu bat ateratzearekin; izan ere, Getxoko herritarrek sekulako tasak eta zergak ordaintzen dituzte, hortaz,

Eduardo Andrade manifiesta que al PP le preocupa que el equipo de gobierno considere que todo está bien ya que así nunca va a plantear mejorar los servicios. Estima que sólo con lo que aparece en las redes sociales se evidencia que los servicios no funcionan bien, poniendo ejemplos concretos de denuncias en las redes sociales. Opina que hay que mejorar el control de los servicios y no vale con que las encuestas de satisfacción ciudadana den una nota alta porque los vecinos en Getxo pagan tasas e impuestos de 10 y requieren también unos servicios de 10.

trukean jasotzen dituzten zerbitzuak ere sekulakoak izan behar dira.

Proposamena bozkatu da, eta honako emaitza hau lortu du: 12 aldeko boto (PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos) eta kontrako 11 boto (EAJ, PSE-EE).

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 12 votos a favor, PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos; 11 votos en contra, PNV, PSE-EE.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

Azken aldian, etengabekoak dira gure udalerriko familiek sare sozialen bitartez gure herriaren egoera txarrari buruz egindako salaketak.

De un tiempo a esta parte, son constantes las denuncias que las familias de nuestro municipio están realizando a través de las redes sociales, sobre el mal estado de nuestro pueblo.

Egunero-egunero, biztanleak kexu dira beren kaleen zikinkeriaz, zaborren bilketaren funtzionamendu txarraz, lorategien egoera eskasaz, obra pribatuak eta publikoak egikaritzeko praktika kaskarraz, haurrentzako zabuen egoera txarraz eta abar.

Un día sí y otro también los vecinos denuncian la suciedad de sus calles, el mal funcionamiento de la recogida de basuras, el deficiente estado de los jardines, la mala práctica en la ejecución de obras privadas y públicas, el mal estado de los columpios infantiles, etc.

Getxoko Udaleko zerbitzu ugari entitate pribatuek kudeatzen dituzte, lehiaketa eta adjudikazio publikoen bitartez.
Zerbitzu horiek udal zerbitzuetatik kanpoko entitate batek kudeatzeak ez du Udala salbuesten zerbitzu horiek ematearen bermatzaile moduan duen erantzukizunaz, eta horrek gobernu-taldeari hainbat betebehar dakarzkio. Horiek ez dira kontratazio-prozesuarekin amaitzen, jarraitu egiten dute kontratuaren indarraldian, eta indarraldi horretan zaindu egin behar da enpresa adjudikaziodunak modu egokian betetzen eta garatzen duela kontratua.

Son muchos los servicios del Ayuntamiento de Getxo gestionados por entidades privadas a través de concursos y adjudicaciones públicas.
El hecho de que estos servicios sean gestionados por una entidad ajena a los servicios propios municipales, no exime al ayuntamiento de su responsabilidad como garante de la prestación de esto servicios, lo que exige al equipo de gobiernos una serie de obligaciones que no terminan con el proceso de contratación, sino que continúan durante la vigencia del contrato durante el cual debe velar por el buen cumplimiento y desarrollo por parte de la empresa adjudicataria

Horregatik guztiagatik, Alderdi

Por todo ello, el Grupo Municipal del

Popularraren udal taldeak osoko bilkurari honako ERABAKI PROPOSAMENA aurkezten dio:

Partido Popular, presenta en el Pleno la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

LEHENENGOA.- Getxoko Udaleko osoko bilkurak gobernu-taldeari eskatzen dio abian jarri dezan enpresa pribatu horiek emandako zerbitzuen kontrol- eta jarraipen-mekanismo bat.

PRIMERA: El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al Equipo de Gobierno a poner en marcha un mecanismo de control y seguimiento en la prestación de estos servicios por parte de dichas empresas privadas.

BIGARRENA.- Kontratutako enpresa pribatuen kontrol eta jarraipen mekanismoek ere kontratuan sinatu diren klausula guztiak betetzen direla bermatu beharko dute eta bereziki langileen lan baldintzen bermea eta lan hitzarmenen betetze maila arautzen dituztenak, ezin baita onartu udal zerbitzuak eskaintzen dituzten langileek, nahiz eta zeharka izan, lan prekarioak izatea.

SEGUNDO: El mencionado mecanismo de control también deberá de vigilar y garantizar el cumplimiento de todas y cada una de las cláusulas recogidas en el contrato y en especial aquellas cuya finalidad es proteger las condiciones laborales de los y las trabajadoras y el cumplimiento del convenio sectorial de referencia. No podemos admitir que trabajadores y trabajadoras que presten servicios municipales, aún siendo de forma indirecta, lo hagan en condiciones laborales precarias.

HIRUGARRENA.- Mozio honen berri eman dadila udal hedabideetan.

TERCERO: Que se informe de esta moción en los medios de comunicación municipales.

**130.- PP ALDERDIKO UDAL-TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, UDALERRIKO HAUR-PARKEETAKO SEGURTASUNARI BURUZKOA.**

**130.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/LA SEGURIDAD EN LOS PARQUES INFANTILES DEL MUNICIPIO.**

Mikel Ibabek ondorengo mozioa irakurri du:

Mikel Ibabe da lectura a la siguiente moción:

Haurrentzako parke eta lorategi ugari ditugu gure udalerrian.

Son numerosos los parques y jardines infantiles de los que disponemos en nuestro municipio.

Etengabe jasotzen dira erreklamazioak horien mantenu eta egokitasun ezagatik, nahiz eta enpresa batek duen horiek mantentzeko ardura.

Son continuas las reclamaciones que se reciben por falta de mantenimiento y adecuación de los mismos, a pesar de que una empresa se encarga de su

Erreklamazio horiek dagozkion batzordeari helarazi zaizkio hainbatetan.

mantenimiento, reclamaciones que ya han sido trasladadas a la comisión correspondiente en varias ocasiones.

Mozio honetan, baina, ez dakartzagu horiek mantentzetik eratorri daitezkeen arazoak, baizik eta udalerri honetan parke batzuek segurtasun handiagoz hornitzeko beharra; izan ere, sarri errepideetatik oso gertu daude.

Pero en esta moción, no traemos los problemas que puedan derivar del mantenimiento de los mismos, sino la necesidad de dotar de una mayor seguridad a algunos de los parques de este municipio, que en muchas ocasiones se encuentran muy cerca de las carreteras.

Gure iritziz, errepideetatik gertu dauden parke horietan hesiak jarri behar dira haien perimetroan, esparru horiek erabiltzen dituzten haurrak seguruago egon daitezen.

A nuestro entender, en estos parques cercanos a la carretera es necesario establecer un vallado del perímetro donde se ubica, para mayor seguridad de los niños que usan estos recintos.

Popular udal taldeak uste du oso garrantzitsua dela arazo hori konpontzea, udalerriko biztanle askori eragiten baitie. Hori dela eta, berriz aurkezten dugu mozio hau, jatorriz 2015eko irailean aurkeztu zena. Udalerri honetan arazo batzuk ez dira konpondu oraindik, eta berriz saiatuko gara, ez delako arazo txiki bat, baizik eta eguneroko errealitate bat gure parkeetan.

Desde el Grupo Municipal Popular, creemos que es sumamente importante solucionar este problema que afecta a muchos vecinos del municipio. Por este motivo, volvemos a presentar esta moción, presentada inicialmente en septiembre de 2015. Hay problemas en este municipio que no se acaban de solucionar y volvemos a insistir, porque no es un problema menor, es una realidad diaria en nuestros parques.

Horregatik guztiagatik, Alderdi Popularraren udal taldeak osoko bilkurari honako ERABAKI PROPOSAMENA aurkezten dio:

Por todo esto, el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

LEHENENGOA.- Udalerriko parke guztietako segurtasun-elementu guztiak berrikustea.

PRIMERO. Revisar los elementos de seguridad de todos los parques del municipio.

BIGARRENA.- Egoera horretan dauden udalerriko parkeetan hesiak jartzea.

SEGUNDO Proceder al vallado de los parques del municipio que se encuentren en esta situación.

HIRUGARRENA.- Mozio honen berri eman dadila udal hedabideetan.

TERCERO. Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

Joseba Arregi jaunak adierazi du mozioak ez duela inolako daturik ematen eta balio-iritzietan oinarritzen dela, ez dokumentazio zehatzean. Adierazi du 48 arlotan egikaritzen ari direla mantentze-kontratuak: prebentziozkoak, asterokoak, hilero birjartzen direnak eta instalazioen urteko orokor bat; mantentze-kontratu horretara 83.000 euro zuzentzen dira urtean. Kexak jasotzen dituen AQS zerbitzuari dagokionez, adierazi du 2017. urtean 34 kexa jaso zirela eta 2018. urtean dagoeneko 37 jaso dituztela; baina horietatik bakar batek baino ez dauka zerikusirik mozioan planteatutakoarekin. Udal-zerbitzuek arriskuaren arabera erabakitzen dituzte parke bakoitzean burutu beharreko jarduketak, eta horretan oinarrituta planteatzen dute segurtasun-elementu osagarriak jartzea. Amaitzeko, PP alderdiaren mozioak egindako adierazpenak eusteko kasu zehatzik planteatzen ez duela kritikatu du.

Joseba Arregi indica que la moción no da ningún dato y se basa en juicios de valor y no en documentación concreta. Manifiesta que hay 48 áreas sobre las que se está ejecutando un contrato de mantenimiento tanto preventivo, de carácter semanal, como de reposiciones mensuales y uno anual general de las instalaciones y a este contrato de mantenimiento se dedican 83.000 euros anuales. Respecto a los AQS que recojan quejas, indica que en el año 2017 hubo 34 y el año 2018 llevan 37, pero solo uno de ellos tiene relación con lo que se plantea en la moción. Los servicios municipales deciden las actuaciones a realizar en cada parque en función del riesgo y en base al mismo plantean la colocación de elementos de seguridad adicionales. Finaliza criticando que la moción del PP no plantea ningún caso concreto que sustente las manifestaciones que realiza.

Maite Arraiza andreak esan du zalantzak dituztela errepideen ondoan dauden parkeei dagokienez —gehiengoak direnak—; baina ez daki mozioan jasotako irtenbidea zuzena den. Horiek horrela, hesiak alde batera uztea eta jarduketa integratzaileago baten alde egitea hobesten du, betiere segurtasuna bermatuz. Horretarako beste mota bateko neurriak har daitezke, besteak beste, ibilgailuen abiaduran eragina duten neurriak edo oinezkoentzako eremuak areagotzea. Horrez gain, komenigarria izango litzateke oinezkoen, gidarien eta parkeetako erabiltzaileen arteko bizikidetzaren hezkuntzan sakontzea. Arestian aipatutako guztia dela eta, abstenitu egingo dira.

Maite Arraiza indica que les genera dudas en los parques que están al lado de las carreteras, que son la mayoría, pero no sabe si la solución de la moción es la correcta y cree que es mejor una actuación más integradora y no poner vallas pero siempre buscando garantizar la seguridad y para ello se pueden adoptar otro tipo de medidas que incidan sobre la velocidad de los vehículos, incrementar las áreas peatonalizadas, etc. Además, también, sería conveniente profundizar en la educación en la convivencia entre peatones, conductores y usuarios de parques, por lo expuesto se abstendrán.

Santiago Sainz jaunak adierazi du bere alderdiak mozioaren alde egingo duela. Hala ere, hobekuntza gisa, kasu zehatzak eta irtenbide zehatzak identifikatzeko aholkatu die, hain zuzen ere, Ciudadanosek egin zuen bezala Getxoko emakumeentzako puntu arriskutsuei dagokienez. Romoko Santa Eugenia parkean arriskua dagoela adierazi du, errepidetik gertu dagoelako.

Santiago Sainz indica que apoyarán la moción aunque como mejora plantea que hubiera sido mejor identificar casos concretos y soluciones concretas como hizo Ciudadanos respecto a puntos de peligro para mujeres en Getxo. Manifiesta que hay peligrosidad en el parque de Santa Eugenia, en Romo, por la proximidad a la carretera.

Enrique Prada jaunak adierazi du GUKek mozioa babestuko duela, bat egiten dutelako mozioaren asmoarekin, ez ordea testu zehatzarekin. Legegintzaldiaren hasieran antzeko mozio bat aurkeztu zen. Alderdi batzuk hobetu daitezkeela uste du, baina horrek ez du esan nahi gobernu-taldea txarto ari denik. Kasuak aztertu eta parke bakoitzean hobetu beharrekoa zehaztu beharko da.

Enrique Prada indica que GUK va a apoyar la moción más por su intención que por el texto concreto. Una moción parecida se presentó al inicio de la legislatura. Cree que hay aspectos mejorables aunque no dice que el equipo de gobierno lo esté haciendo mal. Habrá que estudiar los casos y determinar lo mejorable en cada parque.

Miguel Ibabe jaunak adierazi du gobernu-taldeak beti daukala dena aztertuta edo aztertze-bidean, dena ondo egiten dutela uste dutelako. Herritarrek planteatzen dituzten alderdi zehatzak balio-judizioak ez direla erantzun du. Duela urte batzuk, PP alderdiak proposatutako antzeko mozio bat onetsi zela gogorarazi du. Hala ere, mozioak ez dira lotesleak eta gobernu-taldeak nahi duenean egikaritzen ditu, baina beti atzeratzen du horien egikaritzea. Proposamen zehatzak aurkeztu dituztenean gobernu-taldeak kasu batzuk eta ez besteak aurkeztu izana kritikatzen duela azaldu du, planteamendu orokorrak egiten dituztenean, aldiz, aurka agertzen dira zehaztasun falta leporatuz. Gogorarazi du arrisku-arazoak dituzten parkeetan hesiak jartzea baino ez duela planteatzen mozioak, erabiltzaileen mesederako.

Miguel Ibabe indica que el equipo de gobierno siempre tiene contemplado todo o lo están haciendo porque cree que todo lo hacen bien. Replica que cuando los vecinos plantean cuestiones concretas no se trata de juicios de valor. Recuerda que una moción similar, a propuesta del PP, se aprobó hace años aunque las mociones no son vinculantes y el equipo de gobierno las ejecuta cuando quiere pero siempre retrasando su ejecución. Explica que cuando presentaron propuestas concretas el equipo de gobierno criticó que sólo se presentaban unos casos y no otros y cuando se plantean planteamientos generales el equipo de gobierno también se opone porque falta concreción. Recuerda que la moción sólo plantea que los parques que tengan problemas de seguridad se vallen en beneficio de sus usuarios. A Ciudadanos le indica que el PP ya

Ciudadanosi adierazi dio PP alderdiak duela hiru urte parkeak zehaztu zituela, eta gobernu-taldeak planteamendu zabalago bat egin ez izana kritikatu zuen.

concretó hace tres años parques y el equipo de gobierno le criticó que no tuviera un planteamiento más amplio.

Joseba Arregi jaunak onartu du hobetu daitezkeen alderdiak egon badaudela; hala ere, adierazi du gobernu-taldea oposizioaren aurretik doala ia beti. Gobernu-taldeak ideiak planteatzen ditu, eta udal-zerbitzuek proposamen zehatzak definitzen dituzte. Parkeetan egin diren jarduketa zehatzak kontatu ditu. PPk egindako adierazpenak kritikatu ditu, oro har, enpresa adjudikaziodunek kontratuak egikaritzeko modua gaitzesten dutenak.

Joseba Arregi asume que hay aspectos mejorables pero manifiesta que el equipo de gobierno va casi siempre por delante de la oposición. El equipo de gobierno plantea las ideas y los servicios municipales son los que definen las propuestas concretas. Relata actuaciones concretas que se han venido realizando sobre parques. Critica las manifestaciones del PP que de manera general descalifican como ejecutan los contratos las empresas adjudicatarias.

Miguel Ibabe jaunak uste du gobernu-taldeak aitzakiekin erantzuten duela, eta parkeetako segurtasun arazoarekin zer egingo duen esan behar duela, hori baita mozioak planteatzen duena.

Miguel Ibabe cree que el equipo de gobierno lanza balones fuera y debe decir qué va a hacer con el problema de la seguridad de los parques que es lo que se plantea en la moción.

Joseba Arregik, PPri erantzunez, hainbat parketan gauzatuko dituzten jarduketak adierazi eta zehaztu ditu.

Joseba Arregi responde al PP indicando las actuaciones que van a realizar en diferentes parques, detallando las mismas.

Santiago Sainz jaunak zera esan du Santa Eugenia parkeari dagokionez: plaza hori oinezkoentzat jartzeko egin den planteamendua egia dela, baina ez dela errealitatea; izan ere, parkeak arriskutsua izaten jarraitzen du. Hori dela eta, segurtasuna hobetzeko neurriak har daitezen eskatu du, nahiz eta neurriok behin-behinekoak izan. PPri berriro leporatu dio mozioak kasu eta proposamen zehatzak planteatu ez izana.

Santiago Sainz indica que respecto a la Plaza Santa Eugenia la peatonalización que se plantea es cierta pero no es una realidad y el peligro existe y por eso plantean que se implanten medidas que mejoren la seguridad aunque tengan que ser temporales. Sigue criticando al PP que la moción no plantee casos y propuestas concretas.

Eduardo Andrade jaunak berriro egotzi dio gobernu-taldeari arduragabekeriaz eta nagikeriaz jardutea etengabe.

Eduardo Andrade insiste en acusar al equipo de gobierno de negligencia y desidia continua. Pone ejemplos como

Adibide batzuk jarri ditu, esaterako, Arrigunagan dagoen ping-pong mahaia, okertuta dagoena. Zerbitzuen inguruko kexak langileen ondoriozkoak dira, eta gobernu-taldearen geldotasunaz kexatu da. PPk exijitzen duen zerbitzuaren kalitateari dagokionez, logikoa dela dio, Getxon ordaintzen diren tasak eta zergak kontuan hartuta.

la existencia de la mesa de ping-pong de Arrigúnaga que está torcida. Las quejas sobre los servicios vienen de los trabajadores y se quejan de la inacción del equipo de gobierno. Sobre la calidad del servicio que el PP exige entiende que es la lógica teniendo en cuenta las tasas e impuestos que se pagan en Getxo.

Mozioa bozkatuta, baztertu egin da, aldeko 8 botorekin (PP, GUK, Ciudadanos), kontrako 11 botorekin (EAJ-PNV, PSE-EE) eta 4 abstentziorekin (EH Bildu).

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 8 votos a favor, PP, GUK, Ciudadanos; 11 votos en contra, PNV, PSE-EE; 4 abstenciones, EH Bildu.

**131.- GUK UDAL-TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, EUSKADIKO AIREAREN KALITATEARI BURUZKOA.**

**131.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL GUK S/LA CALIDAD DEL AIRE EN EUSKADI.**

Enrique Pradak ondorengo mozioa irakurri du:

Enrique Prada da lectura a la siguiente moción.

Atmosferaren kutsaduraren ondorioz milaka heriotza izaten dira urtero gure hirietan, Osasunaren Mundu Erakundeak hainbat aldiz adierazi duenez. Egoera hori ikusita, botere publikoek jarraibideak eta jarduketa-protokoloak ezartzeko erantzukizuna dute, bermatzeko herritarrak ahal beste babesten direla atmosfera aldian-aldian edo modu iraunkorrean kutsatzen denerako, bereziki jarduera industrialek edo ibilgailuen trafikoak sortutako kutsadurak gehien eragiten dien udalerrietan eta eskualdeetan. Getxoren kasuan, 15 urte dira, behintzat, nabarmenak direla bertako aireak kalitate txarra izan duen aldiak, eta hainbat urtetan legezko mugak gainditu dira.

La contaminación atmosférica provoca la muerte de miles de personas cada año en nuestras ciudades, tal y como ha puesto de manifiesto la Organización Mundial de la Salud en numerosas ocasiones. Ante esta situación, los poderes públicos tienen la responsabilidad de establecer pautas y protocolos de actuación que garanticen el mayor grado de protección posible de la población ante los episodios de contaminación atmosférica de carácter puntual o continuo, en especial en aquellos municipios y comarcas más afectados por la contaminación procedente de actividades industriales o derivadas del tráfico rodado. En el caso de Getxo ya son al menos 15 años destacando por sus numerosos episodios de mala calidad del aire, habiéndose superado en este tiempo los

límites legales varios años.

Gai horri lotuta, azken hilabeteetan hainbat protesta egin dituzte airearen kalitate txarraren inguruan Euskadiko hainbat eskualdetan (Durango, Elorrio, Muskiz, Gueñes, Zorrotza, San Inazio). Kasu batzuetan foku ezagunetatik datozen kutsatzaileekin lotuta daude, eta, beste batzuetan, jatorri ezezaguneko usain kimiko indartsuak egoteak sortu ditu protesta horiek. Horiek guztiak kaltegarriak izan daitezke arnasten dituzten herritarrentzat. Gure herrian, geroz eta jende gehiagok salatzen ditu sare sozialetan airearen kalitate txarra eta usain arraroak.

En relación con esta cuestión, en los últimos meses se están sucediendo las protestas relacionadas con la deficiente calidad del aire en numerosas comarcas de Euskadi (Durango, Elorrio, Muskiz, Güeñes, Zorrotza, San Inazio), en unos casos relacionadas con episodios contaminantes provenientes de focos conocidos, y en otros, derivadas de la existencia de fuertes olores de naturaleza química y origen desconocido, todas ellas potencialmente perjudiciales para la salud de la población expuesta. En nuestro municipio, son cada vez más las personas que alzan su voz en las redes sociales denunciando la mala calidad del aire y olores extraños.

Ia protesta guztiek komunean dute aldi kutsakor horiek ukitutako herritarren osasunean izan ditzaketen eraginen inguruko kezka. Dena den, Osasun Sailaren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren erantzunak ez ohi dira bateratuak edo koordinatuak izan. Ohikoa da, gainera, Osasun Sailak kontuan ez hartzea Osasunaren Mundu Erakundeak osasuna babesteko ematen dituen neurri zorrotzenak, edo, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak bere erantzunetan agerian jartzea Airearen Kalitatearen Sarearen diseinuan, funtzionamenduan eta/edo kudeaketan gabeziak daudela.

Casi todas las protestas tienen como denominador común la preocupación por los efectos de dichos episodios contaminantes sobre la salud de la población afectada. Sin embargo es habitual que la respuesta de los Departamentos de Salud y de Medio Ambiente, Política Territorial y Vivienda no sea conjunta o coordinada. También es habitual que el Departamento de Salud no tenga en consideración los criterios de protección para la salud más estrictos que proporciona la Organización Mundial de la Salud), o que en sus respuestas el Departamento de Medio Ambiente, Política Territorial y Vivienda ponga de manifiesto la existencia de deficiencias en el diseño, funcionamiento y/o gestión de la Red de Calidad del Aire.

Horregatik guztiagatik, Getxoko Udaleko osoko bilkurari honako ERABAKI PROPOSAMENA helarazten

Por todo lo anterior, se elevamos al Pleno del Ayuntamiento de Getxo la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

diogu:

1. Getxoko Udaleko osoko bilkurak uste du botere publikoek zaindu behar dutela atmosferako airearen kalitate egokia bermatzen dela, kalitate hori narriatzeko faktoreen kontrol eta jarraipen zorrotzaren bitartez, eta modu errazean irisgarri egin behar diela herritarrei haiek arnasten duten airearen kalitateari buruzko informazioa.

1. El pleno del Ayuntamiento de Getxo considera que los poderes públicos deben velar para garantizar una adecuada calidad del aire atmosférico, a través de un estricto control y seguimiento de los factores que inciden en el deterioro de dicha calidad, así como hacer accesible de forma sencilla la información que se proporciona a la ciudadanía sobre la calidad del aire que respiran.

2. Getxoko Udaleko osoko bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio eguneratu ditzan Euskadiko Airearen Kalitatearen Sarearen parametroak, legezko mugez gain, informazioa eman dezan Osasunaren Mundu Erakundeak airearen kalitatearen inguruko gida-balioak betetzeari buruz, eta balio horiek sartu ditzan informazio hori publiko egiteko modu eta prozeduretan.

2. El pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al Gobierno Vasco a que actualice los parámetros de la Red de Calidad del Aire de Euskadi para que, además de los límites legales, proporcione información acerca del cumplimiento de los valores guía sobre calidad del aire recomendados por la Organización Mundial de la Salud, e incluya estos valores en los modos y procedimientos que utilice para hacer pública dicha información.

3. Getxoko Udaleko osoko bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio berrikusarazi dezan, entitate aditu independente baten bitartez, Euskadiko Airearen Kalitatearen Sarearen egungo osaketa, airearen kalitatea kontrolatzeko kabina finkoen kopuruari, kokapenari eta neurketa-parametroei dagokienez, eta berrikuspen hori egin dadin herritarren osasuna babesteari lehentasuna emanda,

3. El pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al Gobierno Vasco a que revise, por parte de una entidad experta independiente, la actual configuración de la Red de Calidad del Aire de Euskadi en lo referente al número, ubicación y parámetros de medición de las cabinas fijas de control de la calidad del aire, y a que dicha revisión se realice dando prioridad a la protección de la salud de la población.

4. Getxoko Udaleko osoko bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio beharrezko administrazio-mekanismoak garatu ditzan Osasun Sailak eta ukitutako udalerriek beharrezko irizpenak edo txostenak igorri ahal izateko Euskadiko Airearen

4. El pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al Gobierno Vasco a que desarrolle los mecanismos administrativos necesarios para que tanto el Departamento de Salud, como los municipios afectados, puedan emitir dictámenes o informes preceptivos

Kalitatearen Sarearen osaketan etorkizunean egin beharreko aldaketei buruz, bai kontrol-kabinei, haien kokapenari eta neurketa-parametroei dagokienez, bai kutsadura monitorizatzeko aurreikusitako unitate mugikorrentzat aurreikusitako neurketa-kanpainei dagokienez.

acerca de las modificaciones futuras en la configuración de la Red de Calidad del Aire de Euskadi, tanto respecto al número de cabinas de control, su ubicación y los parámetros de medición que dispone cada cabina, como acerca de las campañas de medición previstas para las unidades móviles de monitorización de la contaminación.

5. Getxoko Udaleko osoko bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lehenbailehen beharrezko neurri teknikoak edo antolakuntzakoak hartu ditzan Euskadiko Airearen Kalitatearen Sareak bere webgunean argitaratzeko atmosferako airearen kalitatearen neurketen emaitza guztiak, denbora errealean, bai kabina finkoetakoak bai kutsadura kontrolatzeko unitate mugikorretako kanpainetakoak.

5. El pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al Gobierno Vasco a que adopte, a la mayor brevedad posible, las medidas técnicas y/u organizativas necesarias para que la Red de Calidad del Aire de Euskadi haga públicos en su página web los resultados de las todas las mediciones de la calidad del aire atmosférico en tiempo real, tanto de los resultados provenientes de las cabinas fijas como de los obtenidos durante las campañas de las unidades móviles de control de la contaminación.

6. Getxoko Udaleko osoko bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sei hilabeteko epean erantzun bateraturako protokolo bat aplikatu dezan Osasun Sailean eta Ingurumen, Lurralde Politika eta Etxebizitza Sailean, aldian-aldian atmosferako kutsadurak legezko mugak gainditzen dituenerako. Protokolo horrek zehaztuko ditu Sail bakoitzari dagozkion jarduketak, hari esleitutako eskumenen araberakoak, eta herritarrentzako informazio-jarraibide batzuk hartuko ditu barne, egondako gehieneko kutsadura mugak eta Administrazioak haien iturria ezagutzeko eta errepikatzen direla saihesteko egindako jarduketak publiko egin ahal izateko.

6. El pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al Gobierno Vasco a que implante, en un plazo máximo de seis meses, un protocolo de respuesta conjunta entre los Departamentos de Salud y de Medio Ambiente, Política Territorial y Vivienda, ante los episodios locales de contaminación atmosférica en los que se produzcan superaciones puntuales de los valores límite legales. Dicho protocolo determinará el reparto de actuaciones que corresponde a cada Departamento en función de las competencias que tenga atribuidas, e incluirá una pauta de información a la ciudadanía que permita hacer públicos los límites máximos de contaminación alcanzados y las actuaciones realizadas por la Administración en orden a determinar el origen del foco y evitar su repetición.

7. Getxoko Udaleko osoko bilkurak

7. El pleno del Ayuntamiento de

Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio partikula-kutsaduraren mailaren neurketak, unitate mugikorrek egindakoak, osatu ditzan partikulaz osatutako materian presente dauden espezie kimikoak ezagutzeko azterketekin.

Getxo insta al Gobierno Vasco a que las mediciones de los niveles de contaminación de partículas realizados por las unidades móviles sean complementados con análisis dirigidos a determinar las especies químicas presentes en la materia particulada.

8. Getxoko Udaleko osoko bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lan-mahai bat sortu dezan, Osasun Saileko eta Ingurumen, Lurralde Politika eta Etxebizitza Saileko ordezkariek osatutakoa, bertan, bakoitzari esleitutako eskumenei jarraikiz, gainbegiratzeko mozio honetan jasotako neurriak modu egokian jartzen direla abian.

8. El pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al Gobierno Vasco a que constituya una Mesa de Trabajo formada por representantes de los Departamentos de Salud y de Medio Ambiente, Política Territorial y Vivienda en la que, de acuerdo a las competencias atribuidas a cada cual, se supervise la correcta puesta en marcha de las medidas adoptadas en esta moción.

9. Getxoko Udaleko osoko bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio berriz abiarazi dezan airearen kalitatearen neurketa eta kontrola Areetako gunean, gure udalerriko herritarrek kalitate egokia duen airea arnasten duela bermatzeko.
2011n kendu egin ziren Arrigunagako, Santa Anako eta Portugaleteko nautikako kabinak; horren ondorioz, Getxok kontrol-puntu bakarra dago, Aixerrotan, herrigunetik aldenduta dagoena. Horretarako, proposatzen dugu nautikako kontrol-gunea berreskuratzea edo portuko gunea, Areetako ontziralekukoa, sarean sartzea.

9. El pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al Gobierno Vasco a recuperar la medición y control de la calidad del aire al menos en la zona de Las Arenas con el fin de asegurar que la ciudadanía de nuestro municipio respira un aire de calidad adecuada.
La eliminación en 2011 de las cabinas de Medición de Arrigunaga, Santa Ana y la Náutica de Portugalete ha dejado a Getxo con un único punto de control en Aixerrota alejado del entramado urbano. Para ello proponemos la recuperación de la estación de control de La Náutica o la inclusión en la red de la estación del Puerto en el embarcadero de Las Arenas.

10. Getxoko Udaleko osoko bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio webgunean sartu ditzan Bilboko portuak airearen kalitatea neurtzeko dituen 3 guneen datuak, horiek ematen baitute portua bezain foku igorle garrantzitsuaren kutsadura-mailaren berri, eta, litekeena da hark gure udalerriari eragitea.

10. El pleno del ayuntamiento de Getxo insta al Gobierno Vasco a incluir en su web los datos de las 3 estaciones de medición de calidad del aire que el Puerto de Bilbao posee, dado que estas dan cuenta de los niveles de contaminación en un foco emisor tan importante como el Puerto y que, presumiblemente, afecta directamente a

nuestro municipio.

José Luis Landa jaunak, gobernu-taldearen izenean, adierazi du mozio hori hainbat udalerritan aurkeztu dela eta mozioari eman zaion erantzuna komuna izan dela, emango duen erantzunaren oinarria, hain zuzen. Mozioaren lehenengo puntuari dagokionez, zera adierazi du: estazio guztietako datu guztiak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren webgunean eskuragarri daude eta modu irekian eta berehala eskuratu daitezke. Gainera, datuok semaforo moduko eskala batean adierazita daude, errazago uler daitezen. Bigarren puntuari dagokionez, Osasunaren Mundu Erakundearen 2015eko jarraibideak orientagarriak eta orokorrak dira, eta berrikusiak izaten ari dira 2020. urtetik aurrera beste jarraibide batzuk planteatzeko. Gehienez ere, lortu beharreko helburua dira, baina nahitaez bete behar dena estatuko araudia da, zeinak Europako parametroei erreferentzia egiten dien. Hirugarren puntuari dagokionez, estatuko hainbat araudi eta dekretu aipatu ditu, neurketa-puntuen kopurua eta kokalekua zehazteko irizpideak xedatzen dituztenak, baita neurketen parametroak ere. Kanpoko erakunde baten kontrola beharrezkoa ez dela uste du, dagoeneko badagoelako bete beharreko araudi bat. Laugarren puntuari dagokionez, adierazi du Eusko Jaurlaritzak eta udalak ez daukatela eskumenik irizpenak emateko, eta ez da logikoa udalerri bakoitzean neurketa-kabina bat egotea. Gainera, egoera zehatzetarako neurketa-unitate mugikorrak daude. Bosgarren puntuari dagokionez, funtsean, lehenengo puntuan adierazitakoa berresten du. Seigarren puntuari dagokionez, dagoeneko

José Luis Landa, en nombre del equipo de gobierno, indica que la moción se ha presentado en distintos municipios y la respuesta que se ha dado ha sido una respuesta común que es la base de la que va a ofrecer. Respecto al punto primero de la moción manifiesta que el acceso a todos los datos de todas las estaciones está disponible de forma abierta y manera inmediata en la web del Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco, que además también recoge esos datos representados en una escala semafórica para una más fácil comprensión. Respecto al punto segundo, las directrices de la OMS del 2015 son orientativas y generales y se están revisando las mismas para plantear unas a partir del año 2020. Son, en todo caso, un objetivo a lograr pero lo que es de obligado cumplimiento es la normativa estatal que tiene referencias a parámetros europeos. Respecto al punto tercero, cita diferentes decretos y normativa estatal, que fijan el criterio para la ubicación y número de los puntos de medición y los parámetros de las mediciones. Cree que no es necesario el control de una entidad externa ya que existe una normativa regulada que cumplir. Respecto al punto cuarto manifiesta que ni el Gobierno Vasco ni el ayuntamiento tienen competencia para emitir dictámenes y no es lógico que en cada municipio exista una cabina de mediciones y además existen unidades de medición móviles para situaciones concretas. Respecto al punto quinto se remite básicamente a lo indicando en punto uno. Respecto al punto sexto, estima que se está dando ya información. Respecto al punto séptimo manifiesta que se hacen los análisis

informazioa ematen ari direla uste du. Zazpigarren puntuari dagokionez, esan du analisiak beharrezkoak direnean egiten direla. Zortzigarren puntuari dagokionez, adierazi du etengabeko kooperazioa dagoela sailen artean. Bederatzigarrenari dagokionez, bigarren eta laugarren puntuetan azaldutakoari eusten dio. Halaber, adierazi du neurketa-estazio gehiago jartzeak ez dakarrela kontrol gehiago. Nautikako estazioa sarean dagoela esan du, eta ez da jaso funtzionamenduan dagoen estaziorik dagoenik Arrigunagan. Azken puntuari dagokionez, adierazi du Ingurumen Sailak ez dakiela Bilboko Portuan hiru neurketa-estazio daudenik. Amaitzeko, esan du Euskadiko airearen kalitatea toki batetik bestera aldatu egiten dela, eta neurketa-puntu gehiago jartzeak ez dakarrela airearen kalitatearen hobekuntzarik. Getxoko neurketa-estazioa ez dago Arrigunagan, baizik eta efektu guztiak neurtzeko egokia den toki batean.

cuando se estiman necesarios. Respecto al punto octavo indica que hay una cooperación permanente entre los departamentos y respecto al punto noveno se remite a lo explicado en los puntos dos y cuatro indicando que más estaciones de medición no significan más control y que la estación de la Náutica está en la red en la que no consta que exista ninguna estación en funcionamiento en Arrigúnaga. Respecto al último punto manifiesta que Medio Ambiente desconoce la existencia de tres estaciones de medición en el Puerto de Bilbao. Finaliza indicando que la calidad del aire en Euskadi varía de un lugar a otro y más puntos de medición no garantizan mayor calidad del aire. En Getxo la estación de medición no existe en Arrigúnaga sino en otra ubicación que está situada en lugar adecuado para las medir todos los efectos.

Enrique Prada jaunak esan du ez zeukatela gobernu-taldeak adierazitakoaren berririk, baina zehaztu du datuak ez direla denbora errealean ematen, hiru orduko atzerapena baitute. Osasunaren Mundu Erakundearen balioak legezko balioen ondoan ikusgai jartzeko eskatu dute, ez baitute horiek ordezkatzeko eskatu. Kontrol-sareak murriztu egin dira, eta harritu egiten du Ingurumen Sailak ez jakitea Bilboko Portuak hiru neurketa-kabina dituela, zeinek emaitza oso kezkagarriak eman izan dituzten behin baino gehiagotan. Mozioak jakin badaki aireak ez daukala administrazio-mugarik. Osasun Saila barne ez hartzea zentzugabekeria hutsa dela uste du, eta airearen kalitateari osasunaren ikuspuntutik ekitea eskatzen dute.

